

TOUR DE FRANCE EN PAYS BASQUE 1906-2018

FRANTZIAKO TOURRA EUSKAL HERRIAN

30/06 > 30/09
2018



Louis BOBET vainqueur à Biarritz, 5 juillet 1948. ATOMIC-PHOTO.



Musée Basque
et de l'histoire de Bayonne
Baionako Euskal Museoa

Exposition gratuite
Erakusketa urrirk



Contacts presse : *prentsa harremanak*

Anne-Marie Galé – 06 20 51 86 35 – am.gale@musee-basque.fr

Laida Camblong – l.camblong@musee-basque.fr

Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - 37, Quai des Corsaires Kortsarioen Kaia,37

TOUR DE FRANCE EN PAYS BASQUE 1906-2018

FRANTZIAKO TOURRA EUSKAL HERRIAN



Exposition temporaire en gratuité *aldi baterako erakusketa urririk*
Salle Xokoa *Xokoa gelan*

Présentée par le Musée Basque
Baionako Euskal Museoak aurkezturik

jusqu'au 30 septembre 2018
2018ko ekainaren 30etik irailaren 30 arte

Commissariat général *Komisaritza nagusia*

Olivier Ribeton, conservateur en chef du Musée Basque et de l'histoire de Bayonne, *Euskal Museoko kontserbatzaile nagusia*

Production *Ekoizpena*
Syndicat mixte Musée Basque et de l'histoire de Bayonne
Baionako Euskal Museoaren Sindikata anitza
Haritzia Bayonne

Traductions *itzulpenak* : Maramara

Remerciements *Eskerrak*

- * André Darrigade, parrain de l'exposition, *erakusketaren aitabitxia*.
- * L'équipe du Musée Basque et de l'histoire de Bayonne, *Baionako Euskal Museoko langileak*.
- * Les prêteurs *prestatzaileak* : Josiane Arnaud, Vincent Bengochea, Maryse Borthayre, André Darrigade, Michel Etchelet, Roger Goni, Dominique Hirigoyen, Francis Lafargue, Pierre Mauhorat, Marcel Queheille, Pierre Raynal, *Le Petit Musée des Cycles André & Henri Breuillé*, Cambo.

À l'occasion du 105^e Tour de France qui organise l'épreuve contre la montre entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, le samedi 28 juillet 2018, le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne accueille, de juillet à septembre, en salle Xokoa, une exposition originale consacrée aux passages du Tour de France en Pays Basque depuis 1906.



André Darrigade, Paul Maye, Fausto Coppi et Hugo Koblet à Bayonne - Photo Marc AUBERT- Coll. part.

Entre collections du Musée consacrées au cyclisme (fonds Borthayre) et collections particulières basques, elle présente des souvenirs authentiques de quelques grands champions souvent d'origine locale (vélos, maillots, musettes, dossards, dont ceux d'André Darrigade et de Marcel Queheille pour les survivants, mais aussi de Paul Maye, Albert Dolhats, Dominique Arnaud et même Luis Ocaña l'Espagnol devenu Landais d'adoption). Un riche fonds photographique permet d'illustrer les grandes étapes qui eurent lieu en Pays Basque et leurs vainqueurs (par exemple Louison Bobet premier à Biarritz en 1948). Salle Xokoa, entrée libre.

Aurten Frantziako Tourraren 105. edizioa Euskal Herrira itzuliko da, 2018ko uztailaren 28an, larunbatez, Senpere eta Ezpeleta bitartean izanen den erlojupekoarekin. Horren kari, Baionako Euskal Museoak Tourra 1906tik goiti Euskal Herrian iragan delarik, gaiari buruzko erakusketa bikain bat aurkeztuko du Xokoa aretoan, uztaila iraila bitartean.

Txirrindularitza arloko Museoaren bildumak (Borthayre bilduma) eta bilduma partikularak medio, hainbat euskal txapeldunen oroigarri orijinalak aurkeztuko dira, hala nola bizikletak, maillotak, dorsalak, sakutoak (besteak beste bizi diren André Darrigade eta Marcel Queheillerenak), baita Paul Maye, Albert Dolhats, Dominique Arnaud eta Luis Ocañarenak ere (Landetako semea bihurtu espaniarra). Argazki funts oparoaren bitartez Euskal Herriko etapa esanguratsuenak eta garaileak islatuko dira (adibidez, Louison Bobet-en Biarritzeko garaipena 1948an).

Xokoa gela, sartzea urririk.

* * *

Les créateurs du Tour de France


Le Tour est une compétition cycliste par étape masculine la plus ancienne et la plus prestigieuse d'Europe. La course est organisée pour la première fois en 1903 par Henri Desgrange (1865-1940) et le journaliste sportif Géo Lefèvre (1877-1961), pour augmenter les ventes du journal *L'Auto*, propriété de Desgrange et de Victor Goddet (1869 -1926).

En 1930, les coureurs ne sont plus financés par des marques de cycles, mais sont regroupés en équipes nationales. Le journal *L'Auto*, confisqué à la Libération, est repris par *L'Équipe*, nouveau journal administré par Patrice Thominet et Émilien Amaury (1909-1977), lequel rachète le titre en 1965. Jacques

Goddet (1905-2000), fils de Victor et successeur de Desgrange à la direction de *L'Auto* et à l'organisation du Tour de France, est maintenu comme directeur de *L'Équipe*. Il se résigne en 1962 à accepter des sponsors « extra-sportifs », les marques finançant les coureurs et entraînant l'abandon des équipes nationales. Le Tour est actuellement géré par Amaury Sport Organisation (ASO).

Bien que le parcours change chaque année, le format de la course reste aujourd'hui le même avec au moins un contre-la-montre (comme ce 28 juillet 2018 entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette en Pays Basque), le passage à travers les Pyrénées et les Alpes, et l'arrivée sur les Champs-Elysées à Paris.

Un Tour de France féminin, organisé pour la première fois en 1955, s'est tenu de façon épisodique. Devenu, après diverses appellations, la Grande Boucle féminine en 1998 (le terme Tour propriété du groupe ASO ne peut plus être utilisé), il s'arrête en 2010.



Atelier Faria, Cycles Baggi – Samyn, Tour de france 1923 – Mus. Basque.

Frantziako tourraren sortzaileak

Tourra etapatan banatutako gizonezkoen munduko txirrindularitza-lehiaketa zaharrena eta ospetsuenda. Henri Desgrangek (1865-1940) eta Géo Lefèvre kirol kazetariak (1877-1961) sortu zuten lasterketa, 1903an, *L'Auto* egunkariaren salmenta kopurua handitzeko –Desgrange eta Victor Goddet (1869-1926) ziren jabeak–. 1930ean, txirrindulariak bizikleta-marken bidez finantzatzeari utzi eta talde nazionaletan bildu zitzuzten. Askapenaren garaian, *L'Auto* egunkaria konfiskatu egin zuten eta *L'Équipe* egunkari berriak bereganatu zuen, Patrice Thominet eta Émilien Amauryk (1909-1977) administratuak –1965ean, Amaury egunkari osoaren jabe egin zen–. Jacques Goddet (1905-2000), Victorren seme eta *L'Autoren* zuzendari eta Frantziako Tourraren antolatzaile gisa Desgrangeren ondorengoa izan zena, utzi zuten *L'Équipeko* zuzendari gisa. 1962an, «kirolaz kanpoko» babesleak onartu behar izan zituen; ondorioz, markek berri ere txirrindulariak finantzatzu zitzuzten eta talde nazionalak desagertu egin ziren.

Tourra, gaur egun, Amaury Sport Organisation (ASO) erakundeak kudeatzen du.

Nahiz eta ibilbidea urtero aldatzen den, gaur egun lasterketaren formatua hasierako berbera da: gutxienez erlojupeko bat egiten da (datorren 2018ko uztailaren 28an, adibidez, Sennere eta Ezpeleta bitartean, Euskal Herrian), Pirinioak eta Alpeak zeharkatzen dira eta Parisko Eliseoko Zelaietan bukatzen da.

Emakumezkoen Frantziako Tourra, lehen aldiz 1955ean antolatua, noizean behin egin da. Hainbat izen jarri ondoren, 1998an Grande Boucle féminine deitu zioten (Tour terminoa ASO taldearena zen eta ezin zen erabili). 2010ean egin zen azken aldiz.

* * *

Les étapes au Pays Basque

Le Tour de France est passé, depuis 1906, à 41 reprises en Pays Basque : 23 fois avant la seconde guerre mondiale et 18 fois depuis. En 2018, ce sera la 42ème reprise. 39 étapes ont vu leur arrivée en Pays Basque : 30 fois à Bayonne, 3 fois à Hendaye, 2 fois à Biarritz et 2 fois à Saint-Sébastien, une fois à Vitoria-Gasteiz et une fois à Pampelune. 1996 est la seule année où deux étapes ont vu leur arrivée en Pays Basque : à Pampelune et à Hendaye. Bayonne a été 31 fois ville de départ du Tour, les dernières fois en 1986 et 1987. Cambo-les-Bains le fut en 2006.



Juillet 1948 Biarritz-Lourdes, échappée à Larceveau de Bernard Gauthier, Pierre Boratim et Antonio Bevilaqua - Presse-Sports

Etapak Euskal Herrian

Frantziako Tourra 41 aldiz igaro da Euskal Herritik 1906. urtetik: 23 aldiz Bigarren Mundu Gerra baino lehen eta 18 aldiz ondoren. 2018an, bertatik igarotzen den 42. aldia izango da.

39 etapa amaitu dira Euskal Herrian: 30 aldiz Baionan, 3 aldiz Hendaian, 2 aldiz Biarritzen eta Donostian, behin Gasteizen eta Iruñean. 1996an bakarrik amaitu dira bi etapa Euskal Herrian: Iruñean eta Hendaian. Baiona 31 aldiz izan da Tourraren abiapuntua; azkenekoz 1986an eta 1987an. Kanbo 2006an izan zen abiapuntua.

Bayonne 1906

En 1906, à la 8^{ème} étape Toulouse-Bayonne, 17 coureurs « rescapés » prennent le départ le 18 juillet à cinq heures du matin. Un peu plus de dix heures plus tard, Trousselier arrive premier à Bayonne au plateau Saint-Etienne. « La rue Maubec s'était mise en frais : au milieu de cette rue, un superbe arc de triomphe surmonté des mots : Honneur au Tour de France ». Mais le régional Jean-Baptiste Dortignacq (Arudy, 1884 – Peyrehorade, 1928) s'adjuge l'étape car un avis de Desgrange, directeur du journal L'Auto, affiché au café de la Brasserie, fait savoir que Trousselier est déclassé par les contrôleurs pour avoir changé de machine à 12 kilomètres de Bayonne.

1906an Baionan

1906an, 8. etapan, Tolosa-Baionan, uztailaren 18an, «bizirik zeuden» 17 txirrindulariak goizeko bostetan abiatu ziren. Handik hamar ordu pasatxora, Trousselier iritsi zen lehenengoa Baionako Saint-Etienne ordokira. «Maubec karrika apain jarrita zegoen: erdian, garaipenaren arku eder baten buruan, honako hau zegoen idatzita: Frantziako Tourrari ohore». Baino eskualdeko txirrindulari Jean-Baptiste Dortignacq (Arudy, 1884 – Peirahorada, 1928) bereganatu zuen etapa; izan ere, L'Auto egunkariko zuzendari Desgrangek Café de la Brasserie kafetegian utzitako mezu baten bidez jakin zenez, Trousselier kanporatu egin zuten kontrolatzaileek, Baionatik 12 kilometrora bizikleta aldatzeagatik.

L'étape mythique de 1910, Luchon - Bayonne

En 1910 est organisée une étape pyrénéenne, dite « étape monstre » (L'Auto), prévoyant le franchissement des cols de Peyresourde (1569 m.), Aspin (1489 m.), Tourmalet (2115 m.), Aubisque (1709 m.), avant de terminer par le petit col basque d'Osquich (390 m.) à une époque où les routes de montagne n'étaient pas carrossables.

Régional de l'étape, François Lafourcade (Lahontan, 1881 – Eu, 1917) réalise l'exploit d'être en tête au sommet de l'Aubisque avec 15 minutes d'avance sur Lapize. Mais épousé, il s'arrête un moment et termine cinquième de l'étape. Lapize arrive premier à Saint-Jean-Pied-de-Port, suivi à 5 minutes de l'Italien Albini et de Lafourcade. A Bayonne : « 5 heures 30, [...] deux coureurs surgissent ; on clame leur nom : Lapize, Albini. Une dizaine de minutes s'écoulent et voici qu'est signalé le second lot, comprenant François Faber, le premier du classement général, l'énergique Trousselier, le « Bayonnais » Lafourcade, dont la course a fait l'admiration de tous. »

1910eko etapa mitikoa, Luchon-Baiona

*1910ean, Pirinioetan «etapa munstroa»
deituriko bat antolatu zuten (L'Auto);*

*Peyresourde (1569 m), Aspin (1489 m),
Tourmalet (2115 m) eta Aubisque (1709 m)*

*mendateak zeharkatu ondoren, Euskal Herriko Oxkaxeko (390 m) mendate txikian amaitzekoa zen,
mendiko ibilbideak zirkulaziorako egokituta ez zeuden garaian.*

Etapan lehiatu zen eskualdeko txirrindulari François Lafourcadek (Lahontan, 1881 – Eu, 1917) balentria handia egin zuen, Aubisque gailurrean txirrindularien buruan egotea lortu baitzuen, Lapize baino 15 minuto lehenago iritsita. Baino abaiduta zegoenez, une batez gelditu egin zen eta etapa bosgarren postuan bukatu zuen. Lapize iritsi zen lehenengoa Donibane Garazira, atzean, 5 minutura, Albini italiarra eta Lafourcade zituela. Baionan: «5:30, [...] bi txirrindulari agertu dira; haien izenak oihukatu dituzte: Lapize, Albini. Hamar bat minutu pasatzean, bigarren multzoa ikusi da, tartean François Faber, sailkapen nagusiko lehenengoa, Trousselier indartsua eta Lafourcade «baionarra» zeudela; azken horren ibilaldiak denen miresmena jaso du. »



* * *

Joseph Borthayre (Arcangues, 1889 – Biarritz, 1983)

Il aurait dû participer au Tour de France dans la catégorie des touristes-routiers en 1928 mais un accident en décida autrement. Il participa enfin à 65 ans comme mécanicien au Tour de France de 1954 dans l'équipe du Sud-Ouest dirigée par le Bayonnais Paul Maye, ainsi qu'au Tour d'Espagne l'année suivante. Il avait suivi en 1925 à Paris des cours à l'École de soudure autogène, avec spécialisation dans la soudure de la tôle. Il continua sa formation de monteur mécanicien dans la région parisienne de 1925 à 1928. Une fois revenu dans son pays natal, la grande réputation de Joseph Borthayre lui vint de son art de façonneur les selles Brooks retravaillées. Il eut pour clients les plus grands champions : Fausto Coppi, Rik van Steenbergen, Louison Bobet, André Darrigade, Jacques Anquetil, Felice Gimondi, Raphaël Géméniani, Jesús Lorón, Federico Bahamontès, Albert Dolhats et Robert Cazala. Luis Ocaña fut probablement le dernier coureur à participer au Tour de France en 1977 avec une selle habillée de rivets en dural fabriquée par Borthayre. L'arrivée, dès 1966, des selles en plastique plus légères fit abandonner le cuir pour la compétition. Mais les vrais cyclotouristes restèrent fidèles au confort de la Brooks sur mesure. Le coureur Eugène Christophe (Paris, 1885 – 1970) fit une halte en 1967 pour saluer à Biarritz son ami Joseph. Christophe exerçait la profession de serrurier avant de se consacrer au cyclisme et appréciait en connaisseur le travail de Borthayre. Christophe fut l'un des coureurs les plus populaires de son époque, principalement en raison de ses déboires sur le Tour de France de 1913 lorsqu'il cassa sa fourche dans la descente du col du Tourmalet. En respect du règlement, il dût la réparer seul dans une forge de Sainte-Marie-de-Campan.



Joseph Borthayre et Albert Dolhats - Coll. part.

Joseph Borthayre (Arrangoitze, 1889 – Biarritz, 1983)

1928ko Frantziako Tourrean parte hartzeko zen, zikloturista-errerepidetxirrindulari kategorian, baina istripu batek eragotzi zion. 65 urte zituenean parte hartu zuen, azkenean, Frantziako Tourrean, 1954an, mekanikari gisa, Sud-Ouest taldean, Paul Maye baionarraren zuzendaritzapean, baita hurrengo urteko Espainiako Vuelta ere. 1925ean, Parisko soldadura autogenoko eskolan txaparen soldadurako espezialitatea ikasi zuen. Ondoren, mekanikari muntatzaile prestakuntza egiten jarraitu zuen, Parisko eskualdean, 1925etik 1928ra. Bere sorterrira itzulitakoan, Brooks zela birlanduak egiteko trebetasunak ospe handia eman zion Joseph Borthayrerri. Txapeldun handienak bere bezeroak ziren: Fausto Coppi, Rik van Steenbergen, Louison Bobet, André Darrigade, Jacques Anquetil, Felice Gimondi, Raphaël Géméniani,

Jesús Loroño, Federico Bahamontes, Albert Dolhats eta Robert Cazala. Luis Ocaña izango zen, segur aski, Frantziako Tourrean Borthayrek egindako duraluminiozko errematxez hornitutako zela batekin lehiatu zen azken txirrindularia; 1977an, hain zuzen. 1966tik aurrera, plastikozko zela arinagoak egiten hasi ziren, eta horren ondorioz, txapelketetan larrua erabiltzeari utzi zioten. Baino benetako zikloturistek neurrira egindako Brooksen erosotasunarekiko leial izaten jarraitu zuten. Eugène Christophe txirrindulariak (Paris, 1885 – 1970), 1967an, eten bat egin zuen Biarritzen, Joseph Laguna agurtzeko. Christophek, txirrindularitzan aritu aurretik sarraigile profesional gisa lan egin zuenez, Borthayrerentz lana estimatzen zuen. Christophe bere garaiko txirrindulari ezagunenetako bat izan zen, nagusiki 1913ko Frantziako Tourrean izan zituen nahigabeengatik. Tourmalet mendatea jaisten ari zela, urkila hautsi zuen. Araudiari jarraituz, bere kabuz konpondu behar izen zuen, Sainte-Marie-de-Campaneko errementeria batean.



Dévoileur de roue de Marcel Borthayre - Mus. Basque.


* * *

ILLUSTRATIONS *IRUDIAK*

Jean-Baptiste Dortignacq, routier Français.
Carte postale éditée par la Maison "Aux Collectionneurs".
 Auguste Aubert (1872-1957)
 (Mus. Basque et de l'hist. de Bayonne)



Affiche signée en bas à gauche : "Atelier / Faria",
"Cycles Baggi – Samyn / Tour de France 1923
 (Mus. Basque et de l'hist. de Bayonne)



Louison Bobet vainqueur à Biarritz, 5 juillet 1948,
 Atomic-Photo
 (Médiathèque de Bayonne)



Joseph Borthayre avec Eugène Christophe
 (Coll. part.)



<p><i>André Darrigade, Paul Maye, Fausto Coppi et Hugo Koblet à Bayonne (Photo Marc AUBERT)</i> (Coll. part.)</p>	
<p><i>Yvette Horner aide André Darrigade à passer le maillot vert en 1955</i> (Coll. part.)</p>	
<p><i>Assiette souvenir du Bayonne Bordeaux, étape remportée par André Darrigade le 10 juillet 1964.</i> (Coll. part.)</p>	
<p><i>Bienvenue à Luis Ocaña au garage Morin Bayonne (Studio ROGER)</i> (Coll. part.)</p>	

Images et informations sur : musee-basque.fr, expositions temporaires

* * *

PUBLICATIONS ARGITALPENAK

- *Le Bulletin du Musée Basque* n°190, mai 2018
- Cent ans de tour de France en Pays Basque, 1906-2006
Éditions Iru Errege

AUTOUR DE L'EXPOSITION ERAKUSKETAREN INGURUAN

VISITES COMMENTÉES

Jeudis 12 et 19 juillet août, 18h30 : Visites commentées par Olivier Ribeton, conservateur en chef du Musée. Sur inscription : 05 59 59 08 98.

Dans le cadre des soirées du jeudi.

DIMANCHES GRATUITS

L'entrée du musée est gratuite tous les 1ers dimanches du mois : 05/08, 02/09.

SOIRÉES DU JEUDI

En juillet (sauf le 26) et en août, l'entrée du musée est gratuite tous les jeudis en soirée, de 18h30 à 20h30.

Programme exhaustif et informations pratiques : musee-basque.com

BISITA KOMENTATUA

Uztailean, 12an eta 19an, 18:30etan, ostegunetan: Olivier Ribeton kontserbatzaile nagusiaren bisita komentatuak. Izena aitzinetik emanet: 05 59 59 08 98.
Osteguneko arratsekoen kari.

IGANDEAK URRIRIK

Urririk da museoko sartza hilabeteko lehen guziz: 08/05, 09/02.

OSTEGUNEKO ARRATSEKOAK

Uztailean (26an ezik) eta agorilan, urrirk da museoko sartza osteguneko arrats guzietan 18:30etik 20:30ra.

Programa osoa eta argibide praktikoak: musee-basque.com

* * *